

MEMORIA DESKRIBATZAILEA

Programa: Dirulaguntzak energia eraginkortasuneko jardueretarako ETEn eta industria alorreko enpresa handietan.

Proiektua:

Neurria: Teknologiaren hobekuntza ekipo eta prozesu industrialetan / Energia kudeatzeko sistemen ezarpena.

Berrikuspena, 2019ko irailaren 2a

SARRERA

Memoria deskribatzailearen bertsioa hau apirilaren 12ko 263/2019 Errege Dekretua indarrean sartu izanaren ondorio da, dirulaguntzak energia eraginkortasuneko jardueretarako ETEn eta industria alorreko enpresa handietan izeneko programa arautzen duena, zeinean III. eranskinean, FEDER funtsen bidezko kofinantzaketarako dokumentazioa, j) atalean, honako hau aurkeztu behar den azaltzen baita: *Memoria deskribatzailea egingo diren jardueraz, IDAEren webgunean eskuragarri egongo den formatuaren eta ereduaren arabera, edo bestela, tokian tokiko erkidegoetakoetan eta Ceuta eta Melilla hirietan.*

PROIEKTUAREN MEMORIA DESKRIBATZAILEAREN GUTXIENeko EDUKIA

Memoria deskribatzaileak, gutxienez, honako hau azalduko du:

1. ESKATZAILEAREN ETA PROIEKTUAREN IDENTIFIKAZIOA

Eskatzailea: Enpresaren izena.

Proiektua: Proiektuaren titulua.

Erakunde mota: Erakunde publikoa edo erakunde pribatua.

Erakundearen partaidetza sozietarioa, partaidetza publikoa eta partaidetza pribatua bereiziz.

Enpresa mota: Enpresa handia, enpresa ertaina edo enpresa txikia.

IFZ

CNAE 2009.

Helbidea, Posta Kodea, Herria, Probintzia eta Erkidego Autonomoa.

2. PROIEKTUAREN OINARRIZKO DATUAK

2.1 Egingo den proiektuaren definizioa eta egiaztapena (energia aurrezteko dakarren proiektua)

Oraingo produkzio-prozesuaren deskribapena.

Produkzio-prozesuaren blokeen diagrama, eragiketa bakoitzaren energia kontsumoak (termikoa eta elektrikoa) identifikatuz.

Identifikazioa, egingo den proiektuak aldaraziko dituen ekipoen eta eragiketen blokeen diagramaren barruan.

Produkzio-prozesuaren deskribapena, proiektua egin eta gero.

Energia aurrezteko eta eraginkortasuna hobetzeko proposatzen diren neurrien eta jardueren deskribapena eta horien irismen teknikoa eta kuantitatiboa.

2.2 Erreferentziako proiektuaren definizioa eta egiaztapena

Proposatzen diren erreferentziako neurrien eta jardueren deskribapena eta horien irismen teknikoa eta kuantitatiboa.

2.3 Egin beharreko inbertsioa osatzen duten ekipoen eta/edo instalazioen eskaintzak jarduerako

2.4 Erreferentziazko inbertsioa osatzen duten ekipoen eta/edo instalazioen eskaintzak jarduerako edo hartutako erreferentziazko inbertsioa

3. PROIEKTUAREN ENERGIA EMAITZEN BALANTZEA

Lehenbizi, azken energia termikoaren (tep/urteko) eta/edo elektrikoaren (MWh/urteko) kontsumoak zehaztuko dira, proiektua osatzen duten neurri eta jarduera bakoitzerako, hasierako egoeran (abiapuntua, proiektua gauzatu baino lehen) eta aurreikusitakoan (proiektua zerbitzuan jarri ondoren); hartara, egingo den proiektuak azken energia termikoan izango dituen aurrezpen termikoak eta elektrikoak zehaztuko dira, abiapuntuko egoeraren aldean.

Aurreko balioak produkzio-erreferentziei dagozkie, proiektuaren termino fisikoetan (tona/urteko edo baliokidea), abiapuntuko egoeran eta proiektua gauzatu eta gero (aurreikusitako egoera). Era berean, produkzioaren ordu/eguneko eta egun/urteko datuak kontuan hartuko dira egoera bietan: abiapuntukoan eta aurreikusitakoan.

Informazio horrekin eta proiektuaren xedea den plantan energiaren kostu errealean oinarrituta, energia kostuak kalkulatu dira abiapuntuko egoeran eta aurreikusitakoan, aldeaz kalkulatu aurrezpen ekonomikoa energia kostuan.

3.1 Azken energia termikoaren (tep/urteko) eta/edo elektrikoaren (MWh/urteko) kontsumoak zehaztuko dira, proiektua osatzen duten jarduera bakoitzerako, hasierako egoeran (erreferentziazkoa) eta aurreikusitakoan; hartara, egingo den proiektuak azken energia termikoan izango dituen aurrezpen termikoak eta elektrikoak zehaztuko dira, erreferentziazko proiektuaren aldean.

3.2 Proiektuaren produkzioaren zehaztapena eta egiaztapena termino fisikoetan (tona/urteko edo baliokidea), hasierako egoeran (erreferentziazkoa) eta proiektua gauzatu eta gero (aurreikusitako egoera). Produkzioaren ordu/eguneko kopuruaren, egun/urteko kopuruaren eta ordu/urteko kopuruaren zehaztapena eta egiaztapena, erreferentziazko eta aurreikusitako egoeretakoa.

3.3 Energia termikoaren eta energia elektrikoaren unitate-kostuen zehaztapena eta egiaztapena, fakturen kopien bidez (dokumentazioa aurkeztu aurreko urteari dagozkion 12 faktura, edo egiaztatzeko beste bide baten bitartez, aurrekoaren antzeko ezaugarriekin).

3.4 Aurrezpenaren zehaztapena eta egiaztapena, energia kostuari dagokionez.

4. PROIEKTUAREN INFORMAZIO EKONOMIKOA

4.1 Guztizko inbertsioa

Proiektuari lotutako inbertsio gordina.

4.2 Inbertsio aukeragarria

Energiaren aurrezpen eta eraginkortasunarekin zerikusi zuzena duen inbertsioa, hau da, teknologia eraginkorra ezartzera bideratutako guztizko inbertsioaren zatia edo kantitatea. Inbertsio hori aurrekontu banakatu baten bidez justifikatu beharko da (egin beharreko horniduren eskaintzak, instalatzeko ekipoen deskribapen osoarekin).

4.3 Erreferentziako inbertsioa

Erreferentziako proiektuaren kostua (produkzio maila bera duen proiektua, baina ingurumen hobekuntzarik eta energia aurrezpenik gabe); hots, eraginkorra ez den edo indarrean dagoen legeriak eskatzen duen gutxieneko eraginkortasuna daukan teknologian egindako inbertsioa behar bezala justifikatuta.

4.4 Inbertsio garbia

Inbertsio aukeragarriaren eta erreferentziako inbertsioaren arteko aldea.

4.5 Ustiapen mozkinak (inbertsioa aukeragarriarekin zerikusia duten ustiapen mozkinak edo kostua, instalazioaren bizitza erabilgarrian)

Eragindako ustiapen mozkinen zehaztapen eta egiaztapena:

- Energia termikoaren aurrezpenagatik.

Azken energia termikoaren kontsumoen (tep/urteko) aldean oinarrituta zehaztuko da, honako hauen artean: erreferentziako egoeraren eta aurreikusitakoaren artean, proiektua osatzen duten jarduera bakoitzerako, baita lotutako energia kostuak ere.

- Energia elektrikoaren aurrezpenagatik.

Azken energia elektrikoaren kontsumoen (MWh/urteko) aldean oinarrituta zehaztuko da, honako hauen artean: erreferentziako egoeraren eta aurreikusitakoaren artean, proiektua osatzen duten jarduera bakoitzerako, baita lotutako energia kostuak ere.

5. PROIEKTUETAN APLIKATUTAKO NEURRIAK JARDUERAKO

5.1 Proiektuan erabilitako neurri eraginkorren inguruko datuak (1 edo 2 neurri, Oinarrien IV. eranskinaren arabera)

a) Proposatzen diren energia aurrezpen eta eraginkortasunari lotutako jardueren oinarritzko deskribapena eta horien irismen teknikoa eta kuantitatiboa.

b) Energia kontsumoak oraingo egoeran (erreferentziazkoa) eta aurreikusitakoan, eta ondorioz, jarduerako aurreikusten den energia aurrekia, ordezkatzeko duen jardueraren aldean eta proiektuaren gutzitako energia kontsumoaren aldean, aplikatzen den tartean.

c) Jarduera bakoitzari lotutako energia kostu termikoak eta elektrikoak.

d) Ekonomia-energia ratioaren egiaztapena. Eskatzaileak ekonomia-energia ratioa betetzen dela egiaztatu beharko du, 4. atalean azaltzen dena (energia eraginkortasunaren inguruko baldintzak) 1 eta 2 neurriei dagokienez, Oinarrien IV. eranskinean jasota, honako erlazio honen arabera azalduta: inbertsio aukeragarria eurotan eta azken energiaren aurrezpena tep-tan, jarduera bakoitza lotuta dagoen neurriari begira.

e) Berreskuratze Sinplearen Aldiaren (PRS) egiaztapena. Eskatzaileak Berreskuratze Sinplearen Aldia betetzen dela egiaztatu beharko du, honako erlazio honen arabera azalduta: eraginkortasunean inbertsioa aukeragarria eurotan eta energia aurrezketatik eratorritako aurrezpen ekonomikoa urtean, eurotan. Berreskuratze aldi horrek ez du gainditu behar burututako instalazioaren bizitza erabilgarriarena.

5.2 Proiektuan proposatutako jarduerari lotutako informazio ekonomikoa (1 edo 2 neurri, Oinarrien IV. eranskinaren arabera)

- Inbertsio aukeragarria.
- Erreferentziazko Inbertsioa.

6. PROPOSATUTAKO PROIEKTUEN IDENTIFIKAZIOA

Eskaerako, dagozkion jarduerekin, kokapen bakar bat hartuko da kontuan.

Proiektu bakoitzerako industria-planta identifikatuko da, haren gauzatzea proposatzen den gunea, azaltzen den proiektua egiaztatu ahal izateko, hala badagokio, behar diren datu guztiak aurkeztuko dira.

Proiektu bakoitzerako, gutxienez, honako datu hauek aurkeztu beharko dira:

- Establezimenduaren izena.
- Erakunde mota: Erakunde publikoa edo erakunde pribatua.
- Erakundearen partaidetza sozietarioa, partaidetza publikoa eta partaidetza pribatua bereiziz.
- Enpresa mota: Enpresa handia, enpresa ertaina edo enpresa txikia.
- Establezimenduaren CNAE 2009 kodea.
- Harremanetarako pertsona (izena, abizenak, telefono finkoa, sakelako telefonoa eta posta elektronikoa).

- Establezimenduaren helbidea, herria, probintzia eta posta kodea.
- Proiektuaren deskribapena eta irismen teknikoa, erreferentziazko egoeran nahiz aurreikusitako egoeran.
- Urteko produkzioa termino fisikoetan, erreferentziazko egoeran eta aurreikusitako egoeran.
- Produkzioari lotutako ordu/eguneko eta egun/urteko kopurua, erreferentziazko egoeran eta aurreikusitako egoeran.
- Proiektua gauzatzeak eragindako enplegu zuzena.
- Instalazioaren bizitza erabilgarri fisikoa. Aurreikusitako iraupena ekipo/instalaziorako, diseinatutako zeregina betez gero.
- Inbertsio gordina, inbertsio aukeragarria, erreferentziazko inbertsioa, diruz lagundu daitekeen kostua eta eskatutako dirulaguntza.
- Energia termikoaren (tep/urteko) eta energia elektrikoaren (MWh/urteko) kontsumoak, azken energiaren terminoetan hasierako egoerarako (erreferentziazkoa) eta aurreikusitako egoerarako, eta ondorioz, establezimenduan/instalazioan espero den azken energiaren aurrezpena.
- Energia termikoaren eta energia elektrikoaren prezioa. Energiaren prezioa BEZa edo IGICa kenduta zehaztuko da, baita elektrizitatearen zerga eta hidrokarburoen zerga kenduta ere.
- Proiektua gauzatzeko egutegia.
- Ustiapen kontuak eta balantzeak itxiak (aurreko hiru urteak, eskaera aurkezpenaren datatik). Enpleguaren egitura, gaur eguneko egoeran plantillan dauden langile kopuruari dagokionez.
- Jarduera(k) gauzatu d(ir)en hasierako instalazioaren argazki-erreportajea, ordezkatzeko diren ekipoak eta/edo instalazioak identifikatuz, bai eta horien ezaugarrien plakei ere argazkiak eginez ere.

7. DIRUA EMATEKO ESKAERA KONTRAPRESTAZIORIK GABE. DIRUZ LAGUNTZEKO KOSTUA ETA EMANGO DEN DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

7.1 Diruz laguntzeko kostua

Inbertsio aukeragarriaren eta erreferentziazko inbertsioaren arabera egingo da diruz laguntzeko kostuaren zehaztapena. Diruz laguntzeko kostua honako ekuazio honen arabera kalkulatu da:

$$\text{Diruz laguntzeko kostua} = \text{Inbertsio aukeragarria} - \text{Erreferentziazko inbertsioa}$$

7.2 Dirulaguntzaren muga diruz laguntzeko kostuaren aldean

Dirulaguntzen gehieneko kantitatea Errege Dekretuaren I. eranskinean zehazten dena izango da.

Ez dira diruz lagunduko ekonomikoki bideragarriak ez diren jarduerak, eta ondorio hauetarako ez bideragarritzat hartuko da honako jarduera hau: 5.1.e atalean zehazten den inbertsioaren berreskuratze sinplearen aldiak gainditzen duenean gauzatutako instalazioaren bitza erabilgarri fisikoa.